


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko IRAILA

Euskal AEko industri jarduera %8,4 murriztu zen 2012ko irailean

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko abuztuarekin alderatuta %2,9 jaitsi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2012ko irailean %8,4 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2011ko hil beraren aldean. Urtaoen eragina zuzenduta, %2,9 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2012ko abuztuarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2012ko iraileko indizearen bilakaerak den-denak jaitsierak erakusten ditu, 2011koaren aldean. Ekipo-ondasunak %9,3 jaitsi dira, Energia %6,1; Bitarteko ondasunak %8,0, eta Kontsumo-ondasunak %8,6. Azken horien barruan, bai Kontsumo-ondasun iraunkorrak, bai Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %8,6 jaitsi dira.

2012ko iraileko hil arteko aldakuntza, 2012ko abuztuaren aldean, negatiboa izan da industri talde handi guztietan. Energia, %2,9 jaitsi da; Ekipo-ondasunak %1,1, Bitarteko ondasunak %5,6 eta Kontsumo-ondasunak %7,8. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %20,0 eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,2.

Sektore nagusi guztietan jaitsierak ditugu 2012ko irailean aurreko urteko hil beraren aldean. Kautxu eta plastikoan %15,7ko jaitsiera, Garraio materialean %12,2; Material eta Ekipo elektrikoan %9,6.

**1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea
Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38
sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,2
09 - Kautxua eta plastikoak	-15,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-4,1
13 - Makineria eta tresneria	-5,5
14 - Garraio-materiala	-12,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-9,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-6,0
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-9,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen iraileko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Bizkaian %10,9; Araban %8,2; Gipuzkoan %6,1. Hil arteko tasa positiboa izan da Gipuzkoan, %0,8; Bizkaian %7,0 jaitsi da eta Araban %2,1, 2012ko abuztuaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 iraila (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	2012Ira/2011Ira	M(2012Ira) / M(2011Ira)*	2012Ira/2012Abu	2012Abu/2012Uzt
Indize orokorra				
Euskal AE	-8,4	-7,4	-2,9	3,7
Araba/Álava	-8,2	-4,9	-2,1	1,9
Bizkaia	-10,9	-9,8	-7,0	5,7
Gipuzkoa	-6,1	-6,4	0,8	2,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-8,6	-5,3	-7,8	10,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,6	-8,5	-20,0	21,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-8,6	-4,4	-4,2	7,6
Ekipo-ondasunak	-9,3	-5,4	-1,1	2,8
Bitarteko ondasunak	-8,0	-8,3	-5,6	4,5
Energia	-6,1	-11,7	-2,9	2,0

(*) 2012ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago eskuratzeko:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)